

BESTE HITZAK-OTHER WORDS PROGRAMAREN ZUZENDARITZA ARTISTIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

1. XEDEA

Kontratuaren xedea da ondorengo **2. Klausulak** zehazten duen Beste Hitzak-Other Words programaren zuzendaritza artistikoko zerbitzua (aurrerantzean, Programa), aipatuaren diseinu, garapen, planifikazio eta kudeaketa hartzen dituen Orri honetan eta Baldintza Ekonomiko Administratiboen Orrian adierazitakoarekin bat.

Zehazki, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Donostia Kultura) zuzendaritza, gainbegiratze eta kontrolpean eman beharreko zerbitzua ondoko jardueretan gauzatzen da:

- Programa diseinatu, garatu eta planifikatzea, Donostia Kulturak eginiko zirriborroari jarraiki.
- Programan parte hartuko duten bazkide europarrak koordinatzea.
- Harremanak hasia eta mantentzea bazkide europarrekin.
- Bazkideak koordinatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sortzea.
- Donostia Kulturako tokiko laguntzaileekin harremanak izatea Programa gauzatzerakoan.
- Idazleak hautatzeko deialdiak koordinatzea.
- Harreman zuzena idazleekin eta Programaren baitan sor litezken arazoak konpontzea.
- Programan parte hartuko duten idazleen egonaldiak koordinatzea eta beren garapen egokia bermatzea.
- Itzulpenak koordinatzea eta kudeatzea.
- EACEAk (Educational, Audiovisual and Culture Executive Agency) eskatu dituen dokumentuak sortzea, Europako Batzordeak Programa finantzatzeko eskaini duen diru-laguntzaren baitan.
- Programaren aurrekontua gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Web plataformaren edukia kudeatzea.
- Donostia Kulturak zehazten dituen gizarte-sareak kudeatzea.
- Balizko bidaiak bazkide europarren lurraldetara, ezohiko bilerak egiteko.
- Prentsa eta harreman publikoak koordinatzea eta kudeatzea.
- Aipatu Programaren diseinua, garapen, planifikazio eta kudeaketari loturiko beste edozein jarduera.

2. BESTE HITZAK-OTHER WORDS PROGRAMA

Beste Hitzak-Other Words hizkuntza txiki eta gutxituetan idazten duten idazle europarren sare bat sortu nahi duen Programa da.

Programa, beste 63 ekimenekin batera, Europa Sortzaileren azken deialdira aurkeztu diren 500 proiektu ingururen artean hautatua izan da eta, ondorioz, Europako Batzordeak 200.000 euroko diru-laguntza eman dio.

Honela, Donostia Kulturaz gain, Programak atzerriko lau bazkide ditu ere: Youth Forum Na Mladi (Mazedonia), X-Op-Exchange of Art Operators and Producers (Eslovenia), Foras Na Gailge (Irlanda) eta Leeuwarden (Frisia).

Donostia Kulturak lidergoa hartuko du Programa diseinatu, garatu, planifikatu eta kudeatzeko, beste bazkide parte-hartzaile guztiekin batera.

Testu inguru horretan eta idazle europarren aipatu sarea sortzeko, Programaren muina da kultura lankidetzaren sustatuko duten idazleentzako egonaldiak gauzatzea. Horietako lehena 2016an izango da.

Bazkide bakoitzak idazleak bidali eta jasoko ditu urtero eta bigarrenen arduraren izango da lanak sortzea eta, aldi berean, hartzaile den lurraldeko kultura eta literaturari loturiko bi jardueraren publiko osagarri egitea. Literatur lan guztiak ingelesera eta lurralde parte-hartzailetako hizkuntzetara itzuli eta Programaren webgunean argitaratuko dira.

Baldintza Ekonomiko Administrazioen Orriko **13. Klausulak** dioenari jarraiki, Donostia Kulturak Programaren zirriborroa entregatuko die lizitazioaren parte hartu nahi duten guztiei, Donostian dituen bulegoetan (Konstituzio Plaza, 1).

3. LAN METODOLOGIA

Zerbitzuak bere proposamen teknikoan adierazitakoaren arabera eskainiko ditu kontratistak. Nolanahi ere, eta zerbitzua zuzentzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko ahalmena erabiliz, Donostia Kulturak egoki jotzen dituen aldaketa guztiak egin ditzake (egutegia, lan-metodologia, etab.), unean uneko beharren arabera.

Azkenik, eta bere lanaren jarraipen hobetuz, egindako lanaren ebaluazio txostena aurkeztu beharko du 2016ko, 2017ko eta 2018ko abenduaren 31 baino lehen; era berean, kontratua bukatu ondorengo bi hilabeteen barruan, Programaren balantzea egin eta finkaturiko helburuen lorpen-mailari buruzko balorazioa egingo duen azken txostena aurkeztuko du ere.

Donostian, 2015eko urriaren 21ean.

Jaime Otamendi
Jaime Otamendi Muñagorri
Zuzendari Kudeatzailea

